

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

IKASTURTEA 2015-2016

SÜSS JUDUTARRA FILMA

III. Reich-eko zine propagandako
trilogia antisemita

EGILEA: ENEKO DIAZ UGARTE

ZUZENDARIA: JESÚS CASQUETE BADALLO

AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. Testuinguru historikoa	2
3. Propaganda	8
4. III. Reich-eko zinea	10
5. Trilogia antisemita	13
5.1. Die Rothschild, aktien auf Waterloo	14
5.2. Der Ewige Jude	16
6. Süss Judutarra	17
6.1. Teoria eta praktika antisemitak.....	23
7. Ondorioak	29
8. Iturriak	31
8.1. Bibliografia	31
8.2. Web orriak.....	32
8.3. Filmografia.....	32

1. Sarrera

XX. mendeko mugimendu nagusienetarikoa izan zen nazismoa. Alemaniako Alderdi Nazionalsozialista (*Nationalsozialistische Deutsche Arbeiterpartei* aurrerantzean NSDAP) izan zen pentsamolde honen ordezkaria mundu guztia ikaratu zuen garai hartako Alemanian, Adolf Hitler alderdiaren buru eta gidari zelarik.

Lehen mundu gerraren ostean etorri zen fenomeno soziologiko honek hainbat ezaugarri zituen. Hitlerrek huts egindako *putsch*-aren ondoren kartzelan zegoela idatzi zuen *Mein Kampf* liburuan datoz, baita NSDAP-eko hogeita bost puntuen programan. Beraien printzipio garrantzitsuena eta baita izandako erreperkusoagatik ezagunena antisemitismoa da, eta hori da lanaren oinarrietako bat.

Lan honen bigarren pilarean, III. Reich-ak komunikatzerako orduan garatu zuen tresna bati buruz hitz egingo dut: propaganda. Erregimeneko atal honen barne, hainbat alorretan ikus daitezke adibideak: prentsa idatzia, kartelak, irratia eta abar, baina hemen ikus-entzunezko lanen inguruko azterketa egingo da, bereziki *Jud Süß* izeneko filma. Azken hau da aztergaia, adituek trilogia antisemita deitzen duten film bildumatik esanguratsuenetakoa baita.

Jud Süß (Süss judutarra) 1940an Veit Harlan-ek egin zuen film bat da, Propaganda Ministerioak espresuki eskatuta. Joseph Süß Oppenheimer finantza gizon judutarraren inguruko filmea da hau. Filmografia nazionalsozialistatik arrakastatsuenaren izan zen fikzioari dagokionez. Garai hartan Alemaniako biztanleria hirurogeita hamar milioikoa zenean, kalkulatu izan da hogeita bat milioiko audientzia izan zuela film arrakastatsu honek.

Lan honen helburua film hau landuz III. Reich-eko propaganda filmografiako trilogia antisemitan printzipio bera nola planteatu eta islatzen den aztertzea da, eta erakustea propagandaren erabilpen honek zer suposatu dezakeen gizarte batean baita nola alemaniarrek konbentzitu nahi dituen erregimen naziko buruzagiek judutarren aurka joateko.

2. Testuinguru historikoa

Lehen Mundu Gerra 1914ko ekainaren 28an hasi eta 1918ko azaroaren 11n amaitu zen. Gerra Handia bezala ere ezagutua da hamabi milioi pertsona baino gehiago hil egin baitziren.¹ Gizadiaren historian hildako gehien izan dituen gerra kontsideratua izan da. Mundu gerra izena hartu zuen mundu mailako potentzia industrial eta militarrek barnean egon zirelako. Bi talde zeuden: alde batetik Aliantza Hirukoitza Alemaniar Inperioak eta Austria-Hungariak osatua; eta beste aldetik Entente Hirukoitza Erresuma Batua, Frantzia eta Errusiar inperioaz osatua.

1917an Ameriketako Estatu Batuak sartu ziren gerran Erresuma Batua eta Frantziarekin eta Errusia erretiratu egin zen. Hurrengo urtean Austria-Hungariak eta Alemaniar Inperioak armistizioa sinatu zuten, eta Aliantzak gerra irabazi. Armistizioa sinatu ondoren Versaillesko ituna sinatu zuten irabazi zutenen faboretan.

Parisko biltzarrean, Aliatuak eta Alemania batzartu ziren bake hitzarmena sinatzeko. Sei hilabete egon ziren Versaillesko Itunaren negoziazio lanetan eta 1920ko urtarrilaren

¹ <http://historiaybiografias.com/guerra1/>

10ean sartu zen indarrean. Klausula desberdinak zeuden itunaren barruan: lurraldekoa, militarra, moral eta politikoa, ekonomikoa eta laborala².

Beste gauza batzuen artean gerraren ardura eta erruduntasuna Aliatuen aurkako borrokan onartzea izan zen neurrietako bat, baita bere lurralde batzuk aliatuei entregatzea, bost urtez irabazleek inposatutako lehengaiak entregatzea eta 132.000 milioi alemaniar markoko (gaur egungo 442.000 milioi dolar) ordainketa egitea eragindako kalteengatik.

1904an *Deutsche Arbeiterpartei* (DAP) sortu zen Sudeteetan, Austria-Hungarian. Hau da nazionalsozialismoa agertzen den lehen aldia. Gerora partidu honek sorrera txekiarra galtzeko ideiarekin 1918an Alemaniar Langileen alderdi Nazionalsozialista (DNSAP) izena hartuko du. Sozialista nazional izenarekin erreferentzia egin nahi dio oinarrian arrazismoa eta antisemitismoa duen ideologia nazionalistari. Era berean sozialismoa langileriaren munduari egindako dei bat baino ez da.

Mugimendu faxistak gertatzen zeuden marko batean, Alemaniako alderdi nazional sozialistak Italiako faxismoa hartu zuen eredu. Alde teoriko eta programatikoa hutsuneak zeudenez, aktibismo, propaganda eta boterea lortzeko biolentziaren erabilpenarekin konpentsatu zuten.

1919ko urtarrilean Munich-en Langileen Alderdi Alemaniara (DAP) sortu zuen Anton Drexler-ek. Talde politiko hau ikertzeko Alemaniako Adimen Zerbitzuak Adolf Hitler bidaltzen du. Hizlari moduan erakutsitako abilezia dela eta partiduko kide egitea eskatzen diote. Hortik aurrera partidu kide bezala lan egiten hasten da Drexlerrekin batera. 1920ko otsailaren 24an mitin bat egiten da Hitlerren eskakizunez eta

² Krakauer, S. (1985). *De Caligari a Hitler: historia psicológica del cine alemán*. Buenos Aires. Ediciones Paidós Ibérica.

Drexlerrekin batera idatzitako 25 puntu dogmatikoak irakurri ziren. Horretaz gain *Nationalsozialistische Deutsche Arbeiterpartei (NSDAP)* deituko da alderdi politikoa. Hurrengo urtetik aurrera Hitler izango da alderdiko aginte nagusia eta partidua hazten joango da bere oratoriari esker 1923. urtean 50.000 afiliatu izateraino.

Urte berean Municheko *Putsch*-aren ondorioz partidua ilegalizatu eta Hitler kartzelaratuko dute. 1925ean debekua kendu ondoren berriro ere sortuko dute alderdia izen berarekin eta Hitler kargurik altuena izanik. Alemaniako krisi egoeraz aprobetxatuz, eta 1929ko *Crack*-a bere botoek izugarri gora egin zuten *Reichstag*-eko lehen indarra izateraino 1932ko uztaileko hauteskundeetan. Azaroan ere berriro ere lehen indarra izan zen Hitlerren alderdia, baina 35 aulki galdu eta erabateko nagusitasunetik urundu egin zen NSDAP.

NSDAPri bozkatzeko arrazoietakoz batzuk ondokoak dira. Alde batetik, hartuko zituzten neurri antisemitak ez zirela oso gogorrak izango sinestarazi zien alemaniarrei. Bigarrenik, garapen intelektual eta materiala oinarritzko puntua zen bere programan. Gero, aberastasunaren birbanaketa eta masaren indarra bultzatzen zuten, indibidualisten kaltetan. Azkenik, krisi egoera hori errotik aldatzea planteatzen zuten bai sozialistek eta bai nazionalistek, eta hori zen gizarteak eskatzen zuena, erabateko aldaketa bat.

NSDAParen estamentu modura, Adolf Hitlerrek eta Anton Drexlerrek, alderdiko oinarritzko 25 puntu idatzi zituzten. Honako hauek dira hogeita bost horien artean garrantzitsuenak:³

- Alemaniar guztiak bateratzea estatu independente bat osatzeko.
- Eskubide berdintasuna eta Versaillesko itunaren desagertzea.

³ <http://www.historyplace.com/worldwar2/riseofhitler/25points.htm>

- Beraien espazioaren beharizana (*Lebensraum*).
- Nazioaren ongizatearen aurka doan edonor zigortua izango da.
- Horretarako ejertzito nazional bat sortuko da.
- Gizarte klase ertain osasuntsu baten sorrera nahi zuten.
- Puntu guztiak bete ahal izateko estatu zentralizatua eta alderdi politiko bakarra izatea.

Antisemitismoa da, izan ere, NSDAPren programako puntu indartsuenetako bat. “Judutar auzia” moduan ere hitz egin da honetaz. Kontzeptu hau 1879an agertu zen lehen aldiz eta gerora Hitlerrek erabiliko du bere jarraitzaileak mobilizatzeko eta baita nazional sozialistek ere Lehen Mundu gerraren ostean izandako ezbehar nazional, sozial eta ekonomikoari izen bat jartzeko. Baina nahiz eta antisemitismoa kontzeptu bezala garai honetan azaleratu, judutarrekiko gorrotoa ez zen gauza berria.

Antisemitismoaren oinarrietako bat *Sion-eko jakintsuen protokoloa* izeneko idatzi bat da. Liburu antisemita hau 1902an argitaratu zen Errusian eta liburu hau idaztearen arrazoia ondokoa da: ustez, Sion-eko jakintsu batzuk batzartu egin ziren judutar konspirazioa planeatu eta munduaren boterea lortzeko mugimendu komunistak eta masoneria kontrolatuz⁴. Nahiz eta gerora batzar horiek eta konspirazioa gezurra zirela jakin, Hitlerrek bere *Mein Kampf* liburuan eta politikan oinarri moduan hartzen du *protokolo* hau eta bere eragina erraz ikus daiteke, izatez oinarria judutarrenganako gorrotoa baita.

Antisemitismoaren inguruan hainbat eskuliburu atera zituzten nazional sozialistek. *Handbuch der Judefrage (Judutar auzirako eskuliburua)* edo *Antisemitismo exterminador*. 1923an *Der Strumer* egunkaria kaleratu zen lehen aldiz eta 1945.

⁴ Benz, W., *El Tercer Reich, 101 preguntas fundamentales*. Madrid. Alianza editorial.

urterarte bere eslogana “*Los judios son nuestra desgracia*” izan zen⁵. 1933an Nazioarteko Judutartasunaren Aurkako Kanpaina Difamatzailea hasi zen eta hiru gertaerak islatzen dute kanpaina hau: Funtzionarioen berrantolatze legea (1933), Nuremberg-eko legeak (1935) eta “Kristal apurtuen gaua” deritzona (1938). Antisemitismo honen isla NSDAPeko 25 puntuetan zehar ikus daiteke:

- Odol alemaniarra ez daukana ez da nazioko kide izango eta kanpotar moduan biziko da beraien eskubide eta betebeharrekin.⁶ Honen arrazoia da uste zutela alemaniarra izateko herrialdeko odola bakarrik izan behar dela, ez zuen balio gurasoetako bat alemaniarra izateak, ezta herrialde barruan jaio izanak edo bertan beti bizi izanak.

*“Only those who are our fellow countrymen can become citizens. Only those who have German blood, regardless of creed, can be our countrymen. Hence no Jew can be a countryman.”*⁷

- Boto eskubidea alemaniar hiritarrek bakarrik izango dute. Era honetara mugatzen zuten judutarrek edo beste edozein lekutako biztanle ez-alemaniarrek euren mesedetan bozkatzea eta ez herrialdearen ongizate nazionalerako.
- Alemaniar hiritarren ongizatea ezin bada bermatu kanpotar guztiak Alemaniatic joan beharko dira. Nazio bateratu bat izateko oinarrizko unitatea biztanle alemaniarrek ziren nazien ustez, eta ondorioz hauen beharrezakak bakarrik zeukaten.
- Ario edo alemaniarrek ez direnek 1914ko abuztuaren 2a baino arinago Alemaniar lurraldetik alde egin beharko dute. Aurreko puntuarekin erlazionatuta dago hau ere, nazien esanetan nazio alemaniarra alemaniarrez bakarrik osatua

⁵ Ibid.

⁶ <http://www.documentarchiv.de/wr/1920/nsdap-programm.html>

⁷ <http://www.historyplace.com/worldwar2/riseofhitler/25points.htm>

egongo da, herrialdearen ongizatea helburu dutelarik eta interes pertsonalak alde batera uzten dituztelarik.

*"Any further immigration of non-Germans must be prevented. We demand that all non-Germans who have entered Germany since August 2, 1914, shall be compelled to leave the Reich immediately."*⁸

- Erljio askatasuna dago estatu barruan, hau mehatxu bilakatzen ez den bitartean. Suposatzen da erlijio askatasuna zegoela garai hartan naziek ez baitzuten erlijiorik jarraitzen, nahiz eta adituen esanetan kristautasunarekin erlazioa izan. Hala ere, nahiz eta erlijiorik ez izan, beraien idealen aurka zerbait zihoala uste bazuten, mehatxua izango zen nazioarentzat, eta hala gertatu zen judutarrekin.
- Alemaniar prentsa nazional bat sortzea. Estatuak alemaniarrek ez zirenei prentsan parte hartzeko baimena eman behar zien. Honen arrazoia zen alemaniar agintariek ez zutela nahi judutarrek gizarteko iritzi publikoan parte hartu zezaten, judutarrek jendea manipulatzeko erraztasuna zutela pentsatzen baitzuten.

"Today, the Jew is the driving force behind the complete destruction of Germany. Wherever in the world we read offensive articles about Germany, the Jews have manufactured them. During peacetime, as well as during the war, the Jewish financial and Marxist press intentionally incited the hatred against Germany until one state after another gave up its neutrality and joined the World War coalition, ignoring the real interests of their people in the process." (Hitler, Mein Kampf, Ford Translation, 2009).

⁸ <http://www.historyplace.com/worldwar2/riseofhitler/25points.htm>

- Judutarrei zuzentzen zaien beste puntu bat nazioaren aurkako delituarena da, gerratik irabazi pertsonalak izateagatik; izan ere, alemanen esanetan, judutarrek armak saldu eta honekin negozioa egin zuten.⁹

" Since every war imposes on the people fearful sacrifices in blood and treasure, all personal profit arising from the war must be regarded as treason to the people. We therefore demand the total confiscation of all war profits".¹⁰

3. Propaganda

Propaganda hitzak onarpen desberdinak ditu. Alde batetik jendartean egiten den ekintza antolatua, politika edo gizarte ideia jakin batzuetara herri-iritzia lerrarazteko, edo gobernu baten, ordezkari baten... alde egin dezan lortzeko. Eta bestetik norbaiten edo zerbaiten merezimenduak, haren aldeko atxikimendua jasotzeko, gehiegikeriaz goraiatzeko moduan ere ulertu daiteke propaganda.¹¹

Propaganda teknika desberdinak daude, zeintzuk erregimen nazional sozialistan islatzen diren: 1) estereotipoen erabilpena, 2) izenak konnotazio edota karga emozionala duten beste izen batzuekin aldatzea, 3) aukeraketa egokia, 4) errepikapenak erabiltzea hitz esanguratsuekin, 5) etsaia zein den identifikatzea eta 6) autoritate bat aipatzea.¹²

⁹ "The Jewry of finance wants to see the complete economic destruction of Germany and her absolute political enslavement. This is contrary to England's welfare interests. The internationalization of our German economic system, by transferring control of German working strength into the possession of Jewish world finance, can only be completed through a state that is politically Bolshevik. However, in order for the Marxist shock troops of the international Jewish capitalists to finally break the backbone of the German National State, it needs the kind cooperation from outside forces." (Hitler, A., Mein Kampf, The Ford Translation, 2009)

¹⁰ <http://www.historyplace.com/worldwar2/riseofhitler/25points.htm>

¹¹ Lur Hiztegi Entziklopedikoa. (1994) LUR Argitaletxea

¹² Hernandez Narvaez, J. (2007) *Reflexión crítica de la propaganda nazi de Joseph Goebbels vs. George Bush.*

Propaganda izan zen erregimen nazional sozialistaren oinarria eta Hitler boterera eramán eta bertan mantendu zuena. Edozein arlotan aurrera eramaten den ekintza propagandistiko orok funtzio herrikoa, oinarri sinpleak (betiere dikotomietan oinarrituta; egia vs gezurra, maitasuna vs gorrotoa) eta masaren maila intelektuala kontutan izan behar du.¹³

1930ean Joseph Goebbels-ek NSDAPko propaganda buru urte bete zeramalarik¹⁴, bere ministerioaren inguruko lehen idatzi bat argitaratu zuen. Arinago ateratako eskuliburuari informazio gehiago gehitu zion teknika propagandistikoen inguruan gehiago jakiteko.

Lau propaganda tipo bereizten zituen:

1. Hitz idatzia
2. Hitz egiten zena
3. Masen kontzentrazioa
4. Propagandan oinarritutako batzar kulturalak

Azken honen barruan sartzen zen zinea, eta bere helburuetako nagusiena ideologia boltxebistak ezarri zituen oinarriak desagerraraztea zen. Erregimen naziak hedabideen garapena aprobetxatu zuten propaganda medio guztietara sartzeko eta hala esan zuen Hitlerrek, nahiz eta ezagutzen zuen zinea, Weimarrekoa, gehiegi ez gustatu. Hitlerrek propaganda grafikoan ikusten zuen etorkizuna, baita filmetan ere.¹⁵

"After the first few days of battle, it began to dawn on everyone that these Scotsmen were not the men they had been led to believe and were not like the

¹³ Da Costa, M. (2014) *Ideología y propaganda en el cine del Tercer Reich. Cuando el cine alemán se afilió al nazismo*. Salamanca. Editorial Comunicación Social.

¹⁴ Ibid.

¹⁵ Ibid..

*ones depicted in comic books and newspaper articles. That was when I first began to understand some of the most useful forms of propaganda.*¹⁶

Propaganda kontrolatzea erregimen naziaren helburuetako bat izan zen, hedabideak kontrolatu eta erabiltzen badira, iritzi publikoa ere kontrolatzeko erraza izango baita. Hortik NSDAko 25 puntuetan prentsa nazional bat eduki nahi izatea eta *Reichfilmkammer* bat sortzea, Alemaniako garai hartako film industria kontrolatzen zuen korporazio publiko bat Propaganda eta Ilustrazio Publikorako Ministerio barnean Goebbelsen menpean. Korporazio horrek judutar jatorriko inor ez zuen utziko parte hartzen zine industrian.

4. III. Reich-eko zinea

1912ko otsailaren 12an grabatu zen Alemanian lehen filma, *Danza Macabra* deiturikoa, Babelsberg industrigunean. Bost urte beranduago *Universum Film AG* (UFA) izena eman zitzaion film estudioari. 1921erako Europako zine estudio handiena izatera heldu zen. Horrela Weimar garaiko zinea Estatu Batuetako produkzioaren parean jarri nahiko zen Fritz Lang, Robert Wiene eta F.W. Murnau moduko zinegile talentudunak edota Marlene Dietrich *femme fatale*-arekin.¹⁷

Urtean 600 film inguru produzitzen zituzten eguneko milioi bat ikusle inguru izanik, baina 1933an Hitlerrek boterea eskuratu zuenean aldaketa drastiko bat jasan zuen zine alemaniarrak. Aldaketa honen helburua pantaila handia kontrolatzea zen. Goebbels propaganda ministroaren esanetan, zinea irratia ren ondoren propaganda erreminta eraginkor eta ezin hobe ba itzen.

¹⁶ Hitler A., *Mein Kampf*, The Ford Translation (2009)

¹⁷ Krakauer, S. (1947) *De Caligari a Hitler: una historia psicológica del cine alemán*. Ediciones Paidós. Buenos Aires.

Hori dela eta, Reich-eko Zine Kamara sortu zuen. Bertan Erregistro Zinematografiko bat zegoen, non UFAko langile guztiak erregistratuta egon behar ziren. Zineari indarra emateko Kreditu Zinematografikoaren Bankua sortu zuten, helburua finantziazioa zentralizatzea zelarik.

NSDAP boterera heldu eta urte berean ehundaka film zentsuratu zituzten naziek. Bi urte beranduago, 1934ean, Reich-eko Lege Zinematografikoa¹⁸ argitaratu zuen, zeinek Zentsura Komite batean erregistratu beharra zegoen Alemania osoko produkzioa kontrolatzeko. Neurri batzuk planteatzen zituen:

- Alemaniar bizitza kuturaletik judutar eta beste “artista degeneratu” batzuk kanporatzea.
- Zentsura erabiliz produkzio zinematografikoaren kontrol ideologikoa, zein kategoria sistema zabal batez erregulatua zegoen.
- Monopolio zinematografiko baten sorrera alderdi eta estatuaz kontrolatua. Zine industria erabat lotu zuen Hitlerren alderdiak 1937an UFA nazionalizatu zuenean.

Weimar garaiko zinean loratu ziren artista askok Reich-aren inposaketen ondorioz Alemaniatik alde egin zuten, beste batzuen artean Fritz Lang edo Billy Wilder-ek. Exodo horrek alemaniar zinearen kalitatea txarrera joatea eragin zuen. Hala ere, NSDAPk onuragarri ikusten zuen erregimenaren alde ez zegoen jendeak herrialdetik alde egitea, horrela geratzen zen langileriaren kolaborazio totala bermatzen baitzuten.

Zine alemaniarrek artea alde batera utzi eta politikara jo zuen produkzio zinematografikoen gaiak aukeratu eta jorratzeko orduan. “*El septimo arte estaba al*

¹⁸ Meseguer, M. N. (2004). *La intervención velada. El apoyo cinematográfico alemán al bando franquista (1936-1939)* Universidad de Murcia. 38 orr.

*servicio exclusivo del mensaje.*¹⁹ Honen ondorioa izan zen ezin zutela Hollywood-ekin lehiatu. III. Reich-ean nabarmendu zen bakarria Leni Riefenstahl izan zen (*El triunfo de la voluntad*-en egilea), bere lanak hizkuntza zinematografiko iraultzailean landu ahal zituelako, nahiz eta film propagandistikoak baino ez egin erregimen barnean, Hitlerren babespean baitzegoen.

Zinea Goebbelsen lau propaganda tipoen arabera sailkatuz gero, batzar kulturalen barnean egongo zen. Propaganda ministroaren helburu nagusia zinearen bidez boltxebismoaren oinarriak apurtzea zen. Ikuspuntu artistiko eta politikotik uztartu eta landu nahi zuen zine alemaniarra Eisensteinek *El acorazado Potemkin* filmean egin zuen bezala.

Hasiera batean egiten zen zinea erabat propagandistikoa zen. *La victoria de la fe*, *Día de libertad* edo *El triunfo de la voluntad* bezalako tituluak dira ezagunak Reich-aren hasieran. Film hauetan erregimenaren alde onak azaleratzea zen helburua, NSDAPren inguruko propaganda positiboa: bere armada ahaltsua erakustea edota alderdiaren indarra erakustea urtero Nuremberg-en egindako kongresuak grabatuz.

1939an, Hitlerren botere lortzearen seigarren urteurrenean, *führer*-ak urtero legez hitzaldi bat bota zuen Reichstag-ean. Hitzaldi horretan Versaillesko Hitzarmena, *Anschluss* Austriarraz eta egunerokotasun nazional eta internazionalaz aparte, judutarren inguruan hitz egiten hasi zen. Nazioarteko judutartasuna jorratu zuen betiko moduan baina momentu batean judutarrak exterminatzeaz hitz egiten hasi zen. Horretaz gain, propaganda ministerioarekin hitz egin zuen herri alemaniarren arerio nagusia protagonista zuten filmak egiten hasteko.

¹⁹ Da Costa, M. (2014) *Ideología y propaganda en el cine del Tercer Reich. Cuando el cine alemán se afilió al nazismo*. Salamanca. Editorial Comunicación Social. 15 orr.

Urte berean pantaila handian gizarte judutarraren erretratuak egiten hasi ziren *Robert y Bertram* edo *Lino de Irlanda* moduko filmekin. Lehen film horretan protagonista biak kartzelatik alde egiten dute eta dirudunei kentzen diete dirua behar dutenei emateko. Robin Hood antzekoak dira Robert eta Bertram, eta lapurtuak izango direnak judutar aberatsak. Baina erabateko bereizgarritasuna lortu zuten *Trilogia antisemita* moduan ezagutzen diren eta 1940an argitaratu ziren hiru filmek: *Los Rothschild*, *El Judío Eterno* eta *El Judío Süss*.²⁰

5. Trilogia antisemita

Weimar garaian judutarrak artearen arlo guztietan zeuden, baina alderdi nazional sozialista boterera heldu zenean panorama honetatik desagertzen hasi ziren erregimenaren ondorioz. Horrela naziek lortu nahi zutena judutarrei aipamenik ez eginez gizartetik desagerraraztea zen. Baina konturatu zirenean horrek ez zuela ezertarako balio, zinean ere hauen aurkako propaganda egitea planteatu zuen Hitlerrek 1939an Goebbelsekin hitz egin ondoren.

Lehen film antisemitak atera ziren urtean Goebbelsek “antisemita” kontzeptua erabiltzeari utzi eta horren ordez “judutarren aurkako defentsa” bezala planteatzen zituen film hauek, nazioarteko judutarra gizartearentzat mehatxu bat baita. 1939. urteko lehen bi film antisemitetan judutarren ezaugarri fisikoak zeintzuk ziren erakusten zen, eta alemaniar hiritarrei ulertarazi nahi zien ekonomikoki eta sexualki mendebaldeko gizartearentzat arriskutsuak direla.

²⁰ Da Costa, M. (2014) *Ideología y propaganda en el cine del Tercer Reich. Cuando el cine alemán se afilió al nazismo*. Salamanca. Editorial Comunicación Social. 15 orr.

1940an estreinatu zen Trilogia Antisemita, nolabaiteko prestakuntza bat zen judutarren exterminazioa justifikatzeko. Judutarrak kaltegarria gerta daitekeen edozein gauzaren errudunak ziren; Daniel Jonah Goldhagen-ek bere *Hitler's Willing Executioners* liburuan esaten duenez:

*“Personas que nunca habian conocido a judios creían que estos eran agentes del diablo, enemigos de todo lo bueno, responsables de muchos de los males auténticos del mundo y dispuestos al dominio y a la destruccion de sociedades.”*²¹

Hala ere, Goebbels-ek adierazi zuen ez zegoela manipulaziorik film horietan, baizik eta errealitate historiko objektiboaren kontaketa bat direla. Film hauek judutarra pertsonai moduan mitifikatzen zuten, baina era negatiboan. Eta mitoa George Mosse-ren esanetan “talde baten sinesmen indartsuena da, eta sinesten dutenek usteko dute gaizkiaren aurka borroka egingo dutela egiaren izenean”.²²

Atal honetan trilogiako hiru pelikulen inguruan hitz egingo dut, baina lanean Süss Judutarra filmean zentratuko naiz.

5.1. Die Rothschild, aktien auf Waterloo

Naziek propaganda film hauen bitartez mitoak sortu nahi zituzten, horrela biztanlerian ideia batzuk barneratu nahian. Honen lehen adibidea *Die Rothschild, Aktien auf Waterloo (Los Rothschild)* filma da. Errotulu honekin hasten da film hau:

Esta película está basada en hechos históricos. En ella se muestra cómo la casa internacional de la familia Rothschild fundó su poder con el dinero de

²¹ Goldhagen, D.J. (1996) *Los verdugos voluntarios de Hitler. Los alemanes corrientes y el holocausto*. Santillana Ediciones generales. Madrid. 68 orr.

²² Welch, D. (1983) *Propaganda and the German Cinema 1933-1945*. New York. Oxford University Press. 280 orr.(aipatua)

*los ciudadanos de Landgrave y, de este modo, inició el camino para el poder judío en Inglaterra.*²³

Erich Waschneck-ek zuzenduriko film hau da nazi garaiko trilogia antisemitako lehen pelikula. Film honen argumentua XIX. mendetik boteretsua den judutar familiaren inguruan dago, non alemaniarrek ikusten duten nazioarteko judutarraren adibide ezin hobeia. Eta benetan gertatutakoaren berrirakurketa bat egiten dute naziek garai hartako egoera kontutan hartuz, hau da, Ingalaterra zelako momentuan nazismoaren arerio nagusia.

Pertsonai batzuen berreraiketa deigarria da. Mayer Amsche adibidez, Rothschild familiaren sortzailea, kamarak dirua kontatzen dagoela erakusten du lehen plano batekin zer den judutarren buruhaustea, zekena tratuak egiterakoan komisioen inguruan eta krudela “dirua odol isurtzeekin bakarrik irabazi ahal dela” adieraztean. Filmeko beste pertsonai bat, Nathan, esaldi honekin aurkezten da: “*Durante la semana soy inglés pero el sábado soy un judío mas y hago negocios con dios*”. Alemaniar hiritar askok onartu zuten esaldi hori judutar batetik entzutea espero zutela. Pelikulan Hitlerrek bere diskurtsoetan aipatzen zuen “bizitza parasitarioa” erreflejatuta nahi izango da ere, hau da, herrialde berri batera joatea eta hango nazionalitatea hartzea bertako ohiturak eta zereginak egiten zituztelako itxurak egiten zituzten bitartean.

Estatu naziaren oinarriak ez ziren diruaren boterepean egon behar, eta filmean erakusten duten nola judutarrak bere boterea utzitako maileguen errentabilitatean planteatzen dute. Hitlerren ustez eta *Mein Kampf*-ean adierazten duenez, esparru ekonomikoa da judutarrek jolasten duten lekua. Maileguak Europako buruzagiei ematen zizkieten armada indartsua izateko eta ondorioz gerrara joateko. Planteamendu hau oinarri hartuta

²³ Da Costa, M. (2014) *Ideología y propaganda en el cine del Tercer Reich. Cuando el cine alemán se afilió al nazismo*. Salamanca. Editorial Comunicación Social. 188 orr.

führer-ak argudiatzen zuen judutarrak gerrekin aberasten zirela eta hortik dator gazteleraz esaten den “puñalada por la espalda” mitoa, judutarrei atxikitzen zaiena film honetan.

Ondorioz film honekin erregimen nazionalsozialistak erakutsi nahi zuena Ingalaterraren judutartzea zen. Alemaniarrei ulertarazi nahi zitzairen film honekin judutarra herri ustela dela, diruaz bakarrik arduratzen direla eta ezin zarela beraietaz fidatu. Eta horretarako XIX. mendetik aurrera eragin handienetakoa izan duen familia baten adibidea erabili zuten, orduko gertakari politiko gehienetan parte hartzen baitzuten. Eta Waterlooko borroka erabiltzen dute erakusteko nola Nathanek eta bere familiak gudekin aberastasuna sortzen duten.²⁴

5.2. Der Ewige Jude

Jud Süß blockbusterraren arrakasta eta mendebaldeko garaipenak kontutan hartuta, Goebbelsek uste zuen *Der Ewige Jude*-k (*El judío eterno*) trilogiako bigarren filmak bezain harrera komertzial ona izango zuela eta ez zituen esperotako gorroto edota beldur sentimendu sorrarazi.

Fritz Hipplerrek zuzendutako filma dokumental moduan aurkeztu zen nahiz eta gidoi bat jarraitu. Luzemetrai eta dokumental zatiekin osatu zen eta erakusten dena judutarren *ghetto* bat da Polonian kokaturikoa, inbasio eta ondorengo egunetan grabatua. Irudi hauekin erakutsi nahi zuten nazien oinarrietan agertzen den mozorroaren ideia, hau da, esaten dute hiritar europarrak direla pentsarazteko beraienak ez diren ohiturak jarraitzen dituztela, erropak eta tradizioak aldatuz. Baina aldarrikatzen dute benetako judutarraren itxura *ghetto*-koena dela.

²⁴ Giesen, R. (2003). *Nazi Propaganda Films. A history and filmography*. North Carolina. McFarland & Company. 120-121 orr.

*“Las escenas eran tan horribles y brutales en su detalle que a cualquiera se le helaba la sangre. Uno se estremece ante tal barbarie. Estos judíos deben ser exterminados”*²⁵ zioen Goebbelsek filmean ikusitako irudien inguruan. Arratoien zabalkundearekin konparatzen zitzairen. *“Fermento en descomposición de la humanidad”*, *“la peste negra”* eta *“los parasitos del mundo”* moduko deskribapenak egiten zituzten judutarren inguruan hitz egiterakoan.

El judío eterno-n erakusten jarraitzen zuten nola diruak bakarrik motibatzen dituen judutarrak eta naziek interpretatutako balore alemaniarren antitesia direla. Ez dituzte judutarrak bakarrik fisikoki desberdindu nahi arioengandik, baita arima aldetik ere. Alemaniarrek zioten ez zutela arimarik. Suposatzen zen irudi hauek ikusi ondoren atera beharreko ondorioa zela judutarrak hiltzea ez dela krimena, beharizan bat baizik.²⁶

Orain lan hau egiteko aukeratutako filmean sakontzeko, atal banandu batean azalduko dut hau: Süss Judutarra.

6. Süss Judutarra

Jud Süss propaganda naziko film garrantzitsuenetakoa da 1940an argitaratua eta Veit Harlan-ek zuzendua. Garai hartako aktore ezagunek lan egin zuten honakoek, kasu: Ferdinand Marian, Werner Krauss edota Heinrich George. Harlanek Veneziako Urrezko Lehoia eta zine nazional sozialistako sari nagusiak irabaziko zituen film honi esker.²⁷ Baina film alemaniarra ez da Feuchtwanger-en nobelaren ideiak hartuz pantailara eramanezen film bakarra, izan ere sei urte arinago, 1934an Erresuma Batuan egin zuten.

²⁵ Da Costa, M. (2014) *Ideología y propaganda en el cine del Tercer Reich. Cuando el cine alemán se afilió al nazismo*. Salamanca. Editorial Comunicación Social. 200 orr.

²⁶ Welch, D. (1983) *Propaganda and the German Cinema 1933-1945*. New York. Oxford University Press. 300 orr.

²⁷ Ibid.

Kasu honetan nobelaren nondik norakoak jarraitzen ditu, antisemitismoaren zigorra izanez, ez justifikazioa naziek egin zuten moduan. Hala ere ez nobelak ezta filmek ez dute benetan Süss-en biografia kontatzen.

Film hau arinago adierazi dudanez, Lion Feuchtwangerek 1925ean idatzitako izen bereko nobelan inspiratuta dago, eta baita 1827an Wilhem Hauff-ek *Morgenblatt für gebildete Stände* aldizkarian argitaratutako nobela laburrean. Feuchtwangeren liburuak aldaketa batzuk izan zituen Goebbels beraren eskutik, berak moldatu baitzuen gidoia.²⁸ Joseph Ben Issachar Süsskind Oppenheimer-en (1689-1738), Heidelberg-en jaio zen merkatari judutarraren, historia kontatzen du liburuak, eta nola berak finantza eta politikan zituen gaitasunengatik Wuttemberg-eko dukearen aholkulari bilakatzen den.²⁹ Etsaien gorrotoaz inguratuak, bien artean Estatu ustel bat sortzen dute eta izugarritzko aberastasuna lortu.

Halako batean Süss konturatzen da noble baten seme ez legitimoa dela, baina judutar moduan bizitzea erabakitzen du, oso harro baitago lortu duen guztiaz. Dukeak orduan Süssen alaba ezkutua aurkitzen du eta bortxatzera zihoala hil egiten du. Aholkulariak mendekua nahi du eta dukearen planak argitara ateratzen ditu hau haserreaz hilez. Süss konturatzen da bere alaba ez dela bueltatuko, entregatu egiten da eta nahiz eta errudun ez izan urkatzera kondenatzen dute. Hau kristautasunera konbertitu ezean *Shemá Israel* errezatzen hiltzen da. Erlijio judutarraren otoitz nagusia da hau, otoitz sakratuena, eta honen bitartez jainkoarekiko sinesmena aitortzen dute.

Harlan-en filmeko argumentua nahiko aldatzen da liburuak daraman lerrotik.³⁰ *Jud Süss* liburua eta Wilhem Hauffen nobela laburra idazki antinaziak dira, ez antisemitak.

²⁸ Ibid.

²⁹ Giesen, R. (2003). *Nazi Propaganda Films. A history and filmography*. North Carolina. McFarland & Company. 125 orr.

³⁰ Ibid.

Liburutik puntu batzuk baino ez dira hartzen: Süss eta kondearen pertsonaiak, neska bat dagoela bien arteko erlazioan (liburuaren kasuan Süssen alaba da bortxatua eta hil egiten dena, eta gainera alemaniar baten eskutik, hau da, kontea; filmean Stuttgart-eko neska alemaniar bat da bortxaketa jasaten duena eta azkenean suizidatu egiten dena judutar batek bortxatu duelako). Süssen alaba ez denez hil ez du bere mendekua nahi izango, eta ez du aipatzen ere Süss noble errespetatu baten semea dela, oso harro baitago judutarra izateaz eta heldu den lekura heltzeaz.

Filmean ikusten dena zera da: Wuttembergeko jendeak judutarren aurkako gorrotoa eta nola bere trikimailuak erabiliz konterria usteldu egiten duen Süss eta Dukea aberasten diren bitartean, baita nola urkatu zuten nahiz eta filmean ez bezala hil baino arinago erregutzen ez egon, *Shemá Israel* errezatzen baizik.

Pelikula dukearen koronazioarekin hasten da eta hau Süssengana doa diru bila. Honek bitxiak eta dirua lortzen dizkio baita ezkutuan nesken konpainia. Ordainketa moduan Süssek eskatzen dio duke moduan erabakiak hartzea: judutarrak bere dukerrian sartzen uztea, bidesaria jartzea hiriaren sarreran dirua lortzeko... Horrela Wuttemberg-eko herria hondamendian sartzen du.

Dukeak judutarrei sartzen uzten die eta Gorteekin borrokatzen da. Süssek Gorteko baten alaba bortxatu egiten du eta neska suizidatu egiten da neskaren mutil-laguna torturatzen duten bitartean. Honen ostean iraultza hasten da. Dukea hil egiten da bat batean eta Oppenheimer urkatzera bidaltzen dute odol nahaste delituengatik. Azkenean barkamena erregutzen hil egiten da Süss.

Ikus daitekeenez erregimen nazionalsozialistak liburu originaleko elementuak hartzen ditu eta bere interesetara moldatu, hau da, propaganda antisemita nazional sozialista egiteko.

Hauek dira *Jud Süss* filmean nabarmentzen diren pertsonaiak:

– Joseph Süss Oppenheimer

Filmeko protagonista da, finantzetan aditua den judutarra. Bere abileziagatik Wuttembergeko kontearen finantza-aholkularia bihurtzen da eta Stuttgart-eko herriaren gorrotoa bereganatzen du, bera delarik judutar guztien ordezkaria filmean. Horrela bere maltzurkeria, zekenkeria, faltsutasuna, printzipio falta eta gaiztakeria nabarmendu nahi dute pertsonai honetan.

– Karl Alexander kontea

Wuttembergeko kontea da. Eberhard Ludwig dukearen heriotzaren ondorengoa da bera eta herriko kontseiluaren onespenezarekin konterriaren buruzagi bihurtzen da, horrela filmeko fikzio istorioari hasiera emanez. Karl Alexander hasieran alemaniar eredugarria izango da eta gerora Süssekin erlazioa hastean usteltzen joango dela ikusiko da.

– Dorothea Sturm

Alemaniar eta ariar eredua da, neska birjina. Bera izango da Süss herrira eramango duena nolabait istripuaren ostean Stuttgartera hurbiltzen duelako. Süssek helburua bilakatuko da neska orbaingabe hau nahiz eta mutil-laguna izan. Azkenean bortxatua izango da Süssengatik eta odol nahastea jasan ezinik bere buruaz beste egingo du.

– Dorothearen aita

Stuttgarteko kontseiluko burua da, eta hasieran kontearen aldekoa. Gerora, judutarrarekin erlazioa ikusterakoan eta kontseiluari boterea kentzen diola, aldendu egiten da kontearengatik eta Süss eta beste judutar guztiak hiritik kanporatzea eskatuko

du. Ikustean bere alabari egindakoa eta ondorioak urkatzera bidaltzea bultzatzen duena izango da Faber-ekin batera.

– Faber

Faber musika konpositorea eta Dorothearen mutil-laguna da. Erabateko antisemita da eta nazien printzipioek dioten moduan, alemaniar on bat denez, hasieratik konturatzen da Süss judutarra dela. Süssek Dorothea bortxatzen duen bitartean bera torturatua izango da Süssen eskariz eta azkenean bere neskaren aitarekin batuko da Süss eta beste judutar guztien aurkako mugimenduan.

Film honetan naziek erakutsi nahi izan zuten judutar aberatsek zuten eragina XVII eta XVIII. mendeetako europear monarkia eta dukerrietan. Jauntxoek begietara judutarrek gerrak finantzatzeko zuten ahalmenagatik leku pribilegiatu batean jartzen zituzten. Aurreko filmean bezala ulertzera eman nahiko dute judutarra edozer egiteko kapaza dela daukana baino botere eta diru gehiago lortzeko.

Joseph Süss Oppenheimer Karl Alexander Wuttemberg-eko dukearen finantza aholkulari nagusia izango da, eta hau manipulatzeko ikusiko dugu film guztian zehar berak nahi duena lortu arte. Baina, film hau ez da antisemita bakarrik, alemaniar aristokraziaren aurka ere badoa. Stuttgart-en bizi den Wuttemberg-eko dukea ridikulizatu egiten dute. Nazien pentsamoldean ezin da judutarrekin negoziarik egin, eta hala egiten baduzu pertsona zekena zarelako izango dela diote, era berean zure herrialdeari eraso eginez. Mozkortia eta emakumezalea dela ikusten da, eta bere aholkulariak esandakoa jarraitzen duela bere onurarako.

Bestalde hiritar alemaniarren irudia hiru pertsonaitan erakusten da: Dorothea, Sturm eta Faber. Denak dira oso garbiak, ideal oso argiak dituzte eta judutarren aurka daude. Hauek islatzen dute alemaniar hiritar tipoa.

Filmean judutarren aurkako gorrotoa sortzeko hiru elementu agertzen dira: explotatzailea, nazioarteko nahiak eta moral usteltzailea. Explotatzailea dela ulertzen da baserriar baten etxea botatzen duenean bidesariak jartzeko eta horrela diru gehiago irabazteko. Nazioarteko nahiak edo internazionalista dela Süssek ondorengoa adieraztean ikus daiteke: herrialde askotan egon dela, baina, ez dagoela inon eroso; eta moral usteltzailea dela dukearen erabateko ideia aldaketak ikusterakoan.³¹

Azkenean Süssek Dorothea bortxatu egiten du eta neska suizidatu egiten da. Hiriko kontseiluak epaiketara eramaten du Süss eta hainbat deliturengatik zigortu. Dukea ere hil egiten da bihotzekoak emanda bere gehiegikeriengatik. Kontseiluak bi pertsonaiak hil ondoren judutarrak herritik bota nahi izango ditu eta ondokoa esango dute judutarrak kanporatzeko

“...nuestros descendientes se adhieran a este decreto y así eviten el sufrimiento por su propio bienestar y por la seguridad de sus hijos y los hijos de sus hijos...”

2010ean Oskar Rohler-ek zuzendurik *Jud Süs: Film ohne Gewissen* (El judío Süss: Un film sin consciencia) egin zen. Film honen helburua zen naziek drama historiko indartsuak egitearen atzean zegoena erakustea helburu izanik Hollywood-en mailara hurbiltzea eta sentimendu anti-judutarrak sortzea ikusleengan.³² Rohler-ek ondokoa adierazi zuen filmaren inguruan

"Our aim was to enter the innermost sanctum of Nazi high society, and to portray how seducible artists were in the Third Reich."³³

³¹ Ibid.

³² <http://www.theguardian.com/film/2010/feb/25/jud-suss-film-without-conscience>

³³ Ibid.

Filmean adierazten dute Süss judutarra izen bereko 1934ko film ingeles arrakastatsuari erantzuna dela, zein 1925eko erregimen naziaren aurkako nobela batean oinarrituta dagoen.

6.1. Teoria eta praktika antisemitak

Sarreran adierazi moduan, lan honen helburua III. Reich-eko filmografiako trilogia antisemitaren barruan dagoen film batean, Süss judutarra, teoria eta praktika antisemitak identifikatzea da. Antisemitismoaren oinarriak ezagutzeko bi idazki erabiliko ditut: NSDAPko hogeita bost puntuak eta Goebbelsek *Der Angriff* egunkarian³⁴ idatzi zuen judutarren dekalogoia.³⁵

Lehenago adierazi dudan bezala, NSDAPko hogeita bost puntu horien barnean judutarrak “kontrolatzeko” neurri batzuk agertzen ziren. Horien artean ario edo alemaniarrek ez direnak estatutik kanporatzea, odol alemaniarra ez daukana ez dela nazioko kide izango, naziokide ez dena kanpotar moduan biziko dela herrialdean edota *Lebensraum*-aren aldarrikapena eta nazioaren ongizatearen aurka doazenak jarraitu eta zigortzea ongizate komunerako.

Bestalde, Goebbelsek bere aldetik ere judutarrak identifikatzeko eta hauekin nola erlazionatzeko hamar arau argitaratu zituen *Der Angriff* egunkarian. Besteak beste hauek dira baieztapen deigarrienak³⁶:

- Judutarren aurka ezin da era positiboan borrokatu.

³⁴ *Der Angriff, Aufsätze aus der Kampfzeit* aldizkaria irakurri edo ikusi nahian bertsio originalean pdf formatuan link hau jarraitu: <https://ia802306.us.archive.org/21/items/DerAngriff-AufsätzeAusDerKampfzeit/GoebbelsJoseph-DerAngriff-AufsätzeAusDerKampfzeit1935345S.ScanFraktur.pdf>

³⁵ Da Costa, M. (2014) *Ideología y propaganda en el cine del Tercer Reich. Cuando el cine alemán se afilió al nazismo*. Salamanca. Editorial Comunicación Social. 180-181 orr.

³⁶ Ibid.

- Judutarrekin ezin da judutar auziaz hitz egin.
- Judutarrak alemaniar kontuez ezin du iritzia eman.
- Judutar batek ezin du alemaniar bat iraindu.
- Judutarrak dioenaren aurkakoa izango da egia.
- Norbanakoa antisemitismoaren alde edo aurka egon beharko da. Judutarrak defendatzen dituen bere herria erasotzen egongo da. Judutarren aurka egotea higie pertsonal kontu bat baino ez da.

Filmean naziak judutarrei atxikitzen dizkieten hainbat ezaugarri ulertzera ematen dituzte. Horietatik lehenengoa zekenkeria da. Judutarra beti dago diruz inguraturik eta bere aberastasuna handitzeko edozer egingo du. Behar izanez gero bere erlijioa ohiturak edota arropak alde batera utziko ditu. Süs aurkeztu baino arinago judutar batzuen arteko elkarrizketa bat dago, eta bertan esaten dio batek besteari Süssek konteari diru asko utziko diola, horrela beraiek dukearengandik gehiago hartu ahalko dutelako.

Oppenheimer ikusten den eszenan jada kontearen ordezkariarekin tratuak egiten hasten da *juderein*³⁷ (judutar-garbia) zen Stuttgart-era sartu ahal izateko ulertzera emanez bere botere ekonomikoagatik txantajeatu ahal dutela edonor. Hurrengo eszenan badirudi lortu duela pasaporte eta badoala hirira bidean bere helburua lortu nahian.

Honi loturiko beste kontzeptu bat mozorroarena da. Alemaniarren ustetan judutarrek ezaugarri fisiko konkretu batzuk eta arropa batzuk dauzkate. Hasieran Süs aurkezten den modukoa, arropa tradizionalekin. Bizar luzea, ile kizkurtua eta sudur handiarekin, baita maltzur aurpegia. Beti ematen du gaizkia egiteko planeatzen dabiltzala daukaten begiradagatik. Baina itxuraren aldetik gehiago deskribatzen da *Der Ewige Jude* filmean.

³⁷ Giesen, R. (2003). *Nazi Propaganda Films. A history and filmography*. North Carolina. McFarland & Company

Gero argi erakusten du Süssi berdin zaiola bere arropa tradizionalak kentzea aristokrata alemaniar baten moduan janzteko. Arropa elegantea, bizar gabe eta ileordearekin. Bere helburua lortzeko mozorratu egiten da. Halako baten bere rabinoak galdetzen dio ea zer gertatzen den erlijio eta ohiturekin eta Süssek erantzuten dio lehenengoa negozioak direla eta gero gerokoak.

Negozio eta diruarenganako zekentasuna filmeko elkarrizketa honetan erakusten da:³⁸

- *Faber: Está arrojando un montón de dinero aquí. ¿Son ganancias honestas?*
- *Süss: ¿Qué ese so para ti, hermano?*
- *Faber: ¡No soy su hermano!*
- (...)
- *Faber: ¡Ese adorable dinero! Estás tan tranquilo con él, como si no supieras lo difícil que es ganarlo.*
- *Süss: El dinero no tiene olor. Hasta los antiguos romanos lo sabían. ¿Debería ser yo más santo que el emperador romano?*
- *(Txanpon soinua) Süs: Hermoso sonido.*

Hemen Süs karta jokoan ikusten da eta Faberek eta bertan croupier lana egiten daudenek uste dute lapurtutako diru zikinarekin dagoela jolasten, Wuttemberg-eko diruarekin alegia. Faberrek honen ondoren borroka hasten du Süs eta beste alemaniarrekin. Beranduago kartak banatzen zegoen bati Süssek antifaza kentzen dio eta honek ondokoa erantzun:

- *Croupierra: ¡Quítense la máscara! ¡Hebreos!*³⁹

Esaldi honen harira kontearekin ere antzeko elkarrizketa bat izan zuen Süssek Karl Alexanderrri bihotzekoak eman baino momentu batzuk arinago.⁴⁰

³⁸ Filmean 00:32:14 minutuan

³⁹ Filmean 00:33:02 minutuan

- *Kontea: Quítate la máscara amigo mío.*
- *Süss: ¿Que máscara?*
- *Kontea: La última. Me pregunto cómo se ve usted.*

Elkarrizketa honetan erakusten da nola ikusten duten alemaniarrek judutarra. Irakurketa ondokoa izan daiteke: alemaniar biztanleek susmorik ez izateko metamorfizatu behar dira gentila den pertsona batean. Baina, hala ere, judutarra beti judutarra izango denez hiritar onak desberdintzen jakingo du iruzurrean ez jausteko.

Weimar garaiko zineko motibo bat bezala aurkezten da Süss, demiurgo modura. Demiurgoa zine historiako ikasketetan Wiemarreko zineman agertzen den motibo bat da, askotan errepikatzen den film haien ezaugarri bat. Adituen esanetan Weimarreko filmografian elementu hau nola nabarmendu zen ikusiz itxarotekoa zen erregimen nazional soziaistaren gorakada. Demiurgoak bere botereei esker azpian dagoen jendea kontrolatzen du, filmaren kasuan Süssek Wuttemberg-eko dukea. Demiurgo ezagun bat *El gabinete del Doctor Caligari-ko (1920)* Caligari doktorea izango zen, Cesare panpin moduan erabitzen duelarik.

Era berean oinarrituta dagoen pertsonaia errealaren abizen osoa Süsskind zen eta ez Süss bakarrik. Hau aipatzen dut Süssek esanahia daukalako alemanieraz, hau da, gozoa edo gozokia. Horrela ulertu daiteke dukeak edo alemaniar ustelak judutarra gozoki baten moduan ikusten duela nahiz eta errealitatean horrela ez izan, bilgarria baino ez baitira alemaniar hiritar izateko erabiltzen dituzten mozorroak.

⁴⁰ Filmean 01:28:23 minutuan

Nazioarteko judutarraren kontzeptua ere agertzen da, Henry Ford-ek hainbat aldiz esan eta Hilterrek bereganatu zuena. Süssek Dorothearekin dauka elkarrizketa bat. Neska berarengatik interesatzen da, eta nongoa den galdetzen dio. Hau da bere erantzuna:⁴¹

- Süss: *¿En casa? Donde sea.*⁴²
- Dorothea: *¿Donde sea? ¿Entonces no tienes patria?*
- Süss: *Oh si, el mundo.*

Elkarrizketa honekin *Los Protocolos de los Sabios de Sión*-en zabalkundean sortu zuen kondaira indartzen eta salatzen jarraitu nahi dute. Film hau dikotomietan oinarritzen da, hau da, elkarrizketa honetan nazioarteko judutarraren kontzeptua ulertzea emateko Süssek ez duela aberrik erakutsi nahi da, herrialdetik herrialdera doazela eta leku bati etekin gehiago atera ezin dionean beste batera doazela. Honen beste aldean alemaniarren figura dago, Dorothea, ariarra eta alemaniar zintzoa baita eta Alemania dela berak daukan aberri bakarra.

Elkarrizketa honek horrela jarraitzen du⁴³

- Dorothea: *Pero te has tenido que sentir más feliz en algún sitio.*⁴⁴
- Süss: *Creo que nunca me he sentido tan feliz, querida, que aquí en Stuttgart cerca de ti.*

Hemen nabarmentzekoa da nola Süssek Dorothea alemaniarrekin harremana izan nahi zuen, baina, neskak mutil-laguna zuen eta gainera neskaren aitak ez zion Süssi bere alabarekin egoteko baimenik ematen. Hortaz, halako batean Süssek, asko ahalegindu ostean, neska bortxatu egiten du. Dorotheak ezin du horrekin gehiago bizi eta bortxaketaren ostean bere buruaz beste egiten du. Nahiz eta anakronismoa izan, filma

⁴¹ Welch, D. (1983) *Propaganda and the German Cinema 1933-1945*. New York. Oxford University Press. 287 orr.

⁴² Filmean 00:14:10 minutuan

⁴³ Ibid.

⁴⁴ Filmean 00:14:20 minutuan

izan ere hemezortzigarren mendean kokatua baitago, Nuremberg-eko Legeei erreferentzia egiten zaie filmean. Nurembergerko legeak 1935ean izan ziren onartuak, eta bertan aipatzen diren legeen artean odol eta ohore alemaniarra babesteko lege bat sortu zen, eta lege horren bigarren sekzioak dio judutarrek eta odol alemaniarra dutenek ezin dutela erlazio sexualik izan.

Süssen inguruan hitz egiten dutenean edota bera aipatu eta deitzean gehien erabiltzen dutena ez da bere izena, ez Süss, ezta Oppenheimer, baizik eta judutarra moduan identifikatzen dute. Filmean hitz hau erabiltzeko jarrera erabat xenofobikoa da izan ere mesprezu moduan erabiltzen dute adjektiboa. Hau ustelkeria, zekenkeria, maltzurkeria eta gaizkia bezalako hitzekin loturik doa. Filmean planteatzen diren egoerak sorrarazi nahi dute alemaniarrengan judutarrenganako gorrotoa eta era honetara deskribatu eta nabarmendu nahi dute judutarraren figura III. Reich-eko alemanian. Elkarrizketa honetan adibidea:⁴⁵

- *Süss: Sul alteza no debería hacerse problemas sobre cuestiones de negocios. Estoy encantado de estar al servicio de Su Alteza.*
- *Kontea: Si, pero todo tiene un precio.*
- *Remchingen (Kontearen laguntzailea): El judío esta esperando.*

“Judutar” hitza ondoko esaldietan ere nabarmentzen da:⁴⁶

- *Kontea: ¿Y qué? ¿Debería pagar eso?*
- *Süss: Su Alteza, no he pedido ninguna cosa.*
- *Kontea: Sus pedidos serán concedidos totalmente. No tomo regalos de judíos.*
- *Süss: Por supuesto que no. Se que la gente civilizada pada las deudas.*

⁴⁵ Filmean 00:16:13 minutuan

⁴⁶ Filmean 00:19:20 minutuan

Azken esaldi hau ere kontutan hartzekoa da, filmean judutarrenganako gorrotoa bultzatzeaz gain, alemaniar hiritar ustelak ere badaudela erakutsi nahi da. Honekin esan nahi da, Goebbelsen idazkietan adierazten den bezala, judutarrekin erlazionatzen den edozein alemaniar ustela izango dela eta judutarrak defenditzen dituen bere aberria erasotzen egongo dela filmean ondorioztatu daitekeen moduan.

7. Ondorioak

III.Reich-eko filmografian pixka bat sakondu eta bertako materiala NSDAPko printzipioekin konparatu ondoren zenbait ondorio atera daitezke:

- Alemaniarrek judutarren inguruan atera eta sortu dituzten estereotipo guztiak oso erraz ikusi daitezke filmean islatuta. Zekenkeria, maltzurkeria, mozorroa, engainatzeko abilezia, diruarekiko ardura...
- Erraz ikusten da alemaniarrek buruan sartu behar duten ideia dela judutar guztiak beraien lurraldetik kanpo egon behar direla Alemania herrialde *juderein* (judutar garbi) bat izan dadin, Stuttgart-eko kasua estrapolatuz. Erakutsi nahi dute nola judutar gabeko mundu bat odol garbiko jendearentzat onuragarriagoa den.
- Goebbels arduratu zen Hitlerren mezuak pantaila handira eramaten ahalik eta modu sinesgarrienean eta ahalik eta jende gehienari heltzeko helburuarekin, eta lortu ere hogeit bat milioi ikusle izanda.
- Nazioarteko judutarraren ideia sartzekoan nahiz eta alemaniar biztanleei zuzenduta egon, judutarren “maltzurkeriaren ondorioak” sufritu dituztenei ere erlazionatu nahi die ideia honekin.

- Ulertzeraren eman nahi da modu batean judutarrak kanporatzeko erarik errezena heriotzaren bitartez dela. Kontutan hartzen badugu film hau noiz atera zen eta *Endlosung*-a edo judutar auziaren soluzioa martxan noiz jarri zen, aitzakia edo justifikazio modura uler daiteke.
- Nahiz eta judutarrak izan film honetako protagonistak eta “arazo sortzaileak”, badago beste pertsonai bat kontutan hartzen ez dena, hau da, aristokrata. Pertsonai honekin islatu nahi da gizarte alemaniarrean judutarrekin harremanetan jartzen den jendea eta horrek gizarteari ekarri ahal dizkion arazoak.

Lan hau laburbilduz esan daiteke Lehen Mundu Gerraren ostean ikusten zirela alderdi nazional sozialista bat sortzeko bideak. Alderdia errealitate bihurtu zenetik beraien printzipio argiekin aurrera egin zuten eta bizi izan zen krisi egoeran planteatzen zutenagaitik uler liteke zergatik jendeak euren errepresentatzaile moduan hauek aukeratu zituzten. Egia da ere historian egon zen erregimen totalitario bat bera ere ez dela ondo bukatu, nahiz eta hau ezagunetatik ondorio negatiboenak izan. Eta amaitzeko filmografía eta adierazitakoa jarraituz gero 1940. urtetik aurrera gertatutakoa, hau da, judutarren hilketa masiboa, errealitate bihurtuko zela ondorioztatzea gauza erabat logikoa zela esatea izango zen egokiena.

8. Iturriak

8.1. Bibliografia

- Aly, G. (2012). *¿Por qué los alemanes? ¿Por qué los judíos? Las causas del Holocausto*. Barcelona. Editorial Critica.
- Benz, W., *El Tercer Reich, 101 preguntas fundamentales*. Madrid. Alianza editorial.
- Da Costa, M. (2014) *Ideología y propaganda en el cine del Tercer Reich. Cuando el cine alemán se afilió al nazismo*. Salamanca. Editorial Comunicación Social.
- Giesen, R. (2003). *Nazi Propaganda Films. A history and filmography*. North Carolina. McFarland & Company.
- Goldhagen, D.J. (1996) *Los verdugos voluntarios de Hitler. Los alemanes corrientes y el holocausto*. Santillana Ediciones generales. Madrid.
- Hitler, Mein Kampf, Ford Translation (2009)
- Krakauer, S. (1985). *De Caligari a Hilter: historia psicológica del cine alemán*. Buenos Aires. Ediciones Paidós Ibérica.
- Lur Hiztegi Entziklopedikoa (1994) LUR Argitaletxea
- Meseguer, M. N. (2004). *La intervención velada. El apoyo cinematográfico alemán al bando franquista (1936-1939)* Universidad de Murcia.
- Welch, D. (1983) *Propaganda and the German Cinema 1933-1945*. New York. Oxford University Press.

8.2. Web orriak

- <http://www.documentarchiv.de/wr/1920/nsdap-programm.html>
- <http://www.historyplace.com/worldwar2/riseofhitler/25points.htm>
- <http://www.theguardian.com/film/2010/feb/25/jud-suss-film-without-conscience>

8.3. Filmografia

- El Judío Süß (Jud Süß - 1940)
- El Eterno Judío (Der Ewige Jude - 1940)
- Los Rothschild y las acciones de la bolsa tras Waterloo (Die Rothschild, Aktien auf Waterloo - 1940)
- Jude Süß, Film Ohne Gewisse (2010)⁴⁷

⁴⁷ <http://www.imdb.com/title/tt1399655/>